

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

516. zka.
XIII. urtea
2005eko otsailaren 4a



Mozorroa prest al duzu?



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Erreformak-proiektuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Erreformak
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Isolamenduak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Iturgintza, gasa, berogailua, eguzki energia eta klimatizazioa

Angel

Santa Ana, 5
☎ 943 74 17 61
☎ 689 04 92 06

Ongi

Olaso Poligonoa,
15-68 pabilioia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62
☎ 607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 26
☎ 943 74 05 30

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89
☎ 650 58 61 44



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 17
☎ 605 70 52 04



Elektrizitatea

Aramar

Morkalko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40



Indusketa lanak

Lekunberri indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98
☎ 629 42 56 32
koldolekunberri@hotmail.com
www.excavacioneslekunberri.com



ALAITZ VIVES

Ez da erraza ezagutzen ez duzun norbaiti idaztea. Ala bai? Txat batean jardutea bezala da. Esaterako: SuperMario. Venezuelan bizi dela esan dit. Ikaslea, 19 urte, Buenos Airesen jaio eta orain, Caracas inguruko makro-auzo batean bizi da. Behin Bartzelonan izana dela kontatu dit. Ama eta biak anaia txikia auzokoarekin utzita etorri ziren Bartzelona ezagutzera.

Egia ote den? Nik zer dakit ba, motel! Baliteke 56 urteko emakume ezkondua izatea SuperMario "nick-izenaren" atzean ezkutatzen dena. Nik zer dakit ba, Caracas ondoan ala Bartzelonan bizi bada ere!

Eta? Errealia izan ala ez, ni 19 urteko venezuelarrarekin aritu naizen bezala, berak, 39 urteko gizonezkoarekin hitz egin du. Ezkondua, semealabarik ez, bankuetxe batean sistema informatikoekin borrokan pasatzen ditut egunak. Madrilen bizi naiz. Player2 naiz SuperMarioentzat.

Gurea antzerako elkarrizketa izan zitekeen. Zitekeen diot. Izan ere, gure hitzen gainkaldean... norberaren argazkia eta izena. Amak argazkia ikusi eta 39 urteko gizonezko ezkondu madrildarra naizela irakurtzen badu, akabo!

Hala ere, ez dut etsiko. Jolaserako gogoak kazetari baino kontu-kontari aritzera bultzatzen nau eta... ezingo diot ba, gogoari kontra egin!

ZOZOAK BELEARI...



UNAI VILLENA

Alaitz, ezagutzen ez duzun norbaiti idaztea oooso erreza iruditzen zait, batez ere, ordenagailu aurrean eserita eta anonimotasunaren babespean. Hor dago txat-en arrakastaren gakoa. Nick-arekin batera norberak aukeratzen du nor izan nahi duen: nortasun bat asma dezakezu, edota eguneroko bizitzan jantzita daramazun maskara kendu eta zu zeu izan. SuperMariorekin aritu zara, baina pantailaren bestaldean hain gaizki erortzen zaizun auzokidea egon zitekeen, zure jefea, edo beste norbaitekin ligatzen saiatzen ari den zure bikotekidea... hobe ez jakitea!

Aspaldi ez naizela "txateatzen" ibili; nahiago nuke ordenagailuen munduan gertatzen dena bizi garen munduan gertatuko balitz: jendeak ezagutzen ez duen jendeari hitz egiteko erreparorik ez izatea. Baina keba; ezagutzen dugun zenbaiti ia-ia agur ere ez badiogu esaten, nola ausartuko gara ba ezezagunekin? Aurreiritziak alde batera utzi beharko genituzke horretarako, eta hori, oooso zaila iruditzen zaigu, ezta?

Txat kontuetan (eta bestelako kontu guztietan) bakoitzak erabaki dezala noiz, nola eta norekin sartu! Hala ere, nik garbi daukat: aukera izanda, elkarrizketak mahai baten bueltan tragoska bat hartzen askoz hobeak dira internetez baino.

«Ezagutzen ez duzun norbaiti idaztea txatean jardutea da»

ALAITZ

«Aurreiritziak alde batera laga behar genituzke eta oso zaila da»

UNAI



SAN BLAS TA SANTA AGEDAKO PERIAK, MUTIL-NESKATXEN EZAUPIDEAK



Esaera zaharra

Europako konstituzio honi EZ, beste Europa bat beharrezkoa da

Otsailaren 20an, Europar Itun konstituzionalari buruzko erreferenduma dela-eta, EUROPAKO KONSTITUZIOAREN KONTRAKO ELGOIBARTARRAK herritarrei dei egiten dizuegu beste Europa baten alde. Guk nahi dugun Europa gizartekoa eta demokratikoa da, inperialismoaren eta arrazismoaren aurkakoa, bakearen eta genero berdintasunaren aldekoa, elkartzunean eta justizia sozialean oinarritua, lurra eta ingurua zaintzearen aldekoa, herrialde osoko hizkuntzak defendatuko dituen, eta pertsonen eta herrien eskubideak errespetatuko dituena, Autodeterminazioaren eskubidea barne.

Beste Europa honetan sinisten dugunok, EZEZKOA bozkatzera deitzen dizuegu. Hona hemen hainbat arrazoi:

- Itun Konstituzionalak, herritarren partehartzea ez duelako ziurtatzen.
- Kapitalaren eta multinazionalen Europaren ildotik doalako, eta hainbat lortzen sozial jasotzen ez dituelako.
- Autodeterminazioaren eskubidea ukatzen duelako.
- Euskararen diskriminazioa sakontzen duelako.
- Ez duelako genero parekidetasuna

jasotzen. Ez duelako emakumearen aurkako indarkeriari aurre egiteko bitartekorik zehazten eta ez dituelako oinarritzko eskubide sozialak onartzen: abortatzeko eskubidea, antisorgailuena, aukera sexual askearena....

- Garapenari buruz iraungaitza den eredu definitzen duelako, errekurtsioen gehiegizko ustiakuntza luzatuz.

- Estrategia armamentista, inperialista eta militaristari erantzuten diolako gastu sozialaren kalterako eta armamentu fabriken alde.

- Etorkinekiko politika zapaltzaileak babesten dituelako.

- Oinarritzko askatasunen mugatzea ekarriko duelako Estatuei baimena emanez pentsamendu bakarra inposatzeko.

Plataforma honen aurkezpena larunbat honetan, hilak 5, 12etan Plazan izango da. Bertan manifestu bat irakurri eta denok batera argazki bat aterako dugu. Herritar guztiak gonbidatuta zaudete. Zu ere bai!

EUROPAKO KONSTITUZIOAREN KONTRAKO ELGOIBARTARRAK (ELA, LAB, STEE-EILAS, EINBIOU, GAZTE ASANBLADA, EZKER BATUA-BERDEAK, BATASUNA, ASKATASUNA)

Elgoibarko herriari

LXII. Nazioarteko Juan Mugerza Kroseko antolatzaileak, Udal Kriol Patronatuak eta Mintxeta Atletismo Taldeak, zuen laguntza eskertu nahi dugu eta, aldi berean, aurtengo arrakasta zuoi ere helarais nahi dizuegu. Izan ere, zuen lankidetzarik gabe ezinezkoa litzateke egunkarietako goiburuetan, mundu mailan hain aipatua izan den Elgoibarko herriaren izena agertzea.

Hurrengo urtean ere zuen laguntza izatea espero dugu, hartara, komunikabideek lau haizeetara zabal dezaten gure herriaren, Elgoibarren izena.

Eskerrikasko guztioi.

**JUAN MUGERZA KROSEKO ANTOLATZAILEAK
UDAL KRIOL PATRONATUA
MINTXETA ATLETISMO TALDEA**

OKERRAK ZUZENTZEN

Pasa den astean Biluzik sexologia txokoan argitaratu zen datu bat ez zen zuzena. DBH4 mailan koito harremanak izan DITUZTEN gazteen kopurua da %18. Izan EZ dituztenak, beraz, %82 dira. Barkatu nahastea.

Bestalde, www.elgoibar.org orriak 2004 urtean 9280 bisita izan zituen. Horietatik 4205 pertsona ezberdinek egindako bisitak izan ziren.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.

[b]arren

Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
Publizitate: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala ZUZENDARIA Jaxone Osoro KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea PUBLIZITATEA Amaia Erkizia MARKETZAILA Jaione Unanue KOLABORATZAILAK Uxue Alberdi, Mikel Comejo, Juanito Gorosiza, Amaia Gorrotxategi, Imanol Larranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Esther Gurmuzaga, Iban Urizar, Kokoa KE, Ururzuno, Unai Villena, Alaitz Vives ESABEA ZAHARRA Gotzon Garateren liburutik INPRIMATEGIA Getxo Koop. E. TRADA 4.300 ale LEGE GORDAILUA SS-1038/92 ISSN 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.



TXALOKAK



Herritar batek Udalari “txalo-eskaera” egin nahi dio Madalako Errotondako egungo egoera aitzakia hartuta: “Azkenik Madalan errotonda normal bat daukagu, eta txalotzekoa da. Bazen garaia! Elgoibarko trafikoa izugarri hobetu da Madalako errotonda itxi zutenetik, askoz etenaldi gutxiago egoten da, eta ordu puntetan ere, ez da itxaron beharrik izaten. Dirudienez, gazte batek izorratu zituen semaforoak, eta konpontzeko zain daude. Nik, dagoen bezala lagatzeko eskatuko nioke Udalari. Eskerrik asko!”.



TXALOKAK

Ume batzuk Udala txalotu nahi dute, Madalako parkea berriro dutelako: “Denbora asko egon gara parkerik gabe, baina azkenean jarri dituzte jolas berriak. Udalari eskerrak eman nahi dizkiogu, eta orain herriko gainontzeko parkeak konpontzen jarraitzeko eskatu nahi genioke”.



GALDERA

Joan zen asteko hotz siberiarraren ildotik, honako zalantza hau helarazi digu herritar batek: “Ba al dago Elgoibarren eskale eta etxerik gabeko jendea hartzeko aterpe edo lekurik? Eskale bat ikusi nuen Plaza Handiko banku batean lo eta galdera hau etorri zitzaidan burura, egiten zuen hotza bertan ziplo geratzeko modukoa baitzen”

Udalera deitu dugu erantzun bila eta hauxe erantzun digu Jabier Oñederra Udaltzainburuak: “Horrelako kasuetan bokadilo bat eskaintzen zaie edo Bilbon edo Donostian dauden aterpetxeetara joateko bidaia txartela ordaintzen diegu. Egia esan behar bada, asko dira gisa honetako kasuak”.

Atal honetarako kexak, txalokak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

☎ 943 74 41 12

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA



Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83



URRUZUNIOREN
Luma

Ezezaguna

Ezezagun bat gehiago
Hiri ezezagun batean
Presaka, ihesi dirudi
Hiriko gehientsuenen antzera
Baina bera benetan ihesi ari da
Eguneroko hitzen atzean ezkutatu nahi du
Hitzek kezko kortinak sortzen baitituzte
Babes faltsuaren sentazioa emanez
Kontzientziak, ordea, hortz luzeak ditu
Eta zenbat eta azkarrago ihes egin
Orduan eta gertuago ageri da

Ezezagun bat gehiago
Hiri ezezagun batean

Iñigo Otaño



BANESAN?

AITZIBER CORTAZAR

DEBABARRENAKO
AGENDA 21 EKO ARDURADUNA

Joan zen astelehenean, hilaren 31n, hasi zen Tokiko Agenda 21 forua Elgoibarren. Debegeesak bultzatutako proiektu honen nondik norakoak jakiteko jo dugu Aitziber Cortazarrengana.

- **Zer da Tokiko Agenda 21?** Herrien plangintza egiteko tresna edo erraminta da. Bi berezitasun ditu; garapen jasangarria bilatzen du batetik, eta, bestetik, berau burutzeko herri partaidetza behar du. Prosezua honakoa litzateke: herriaren egungo egoera azaltzen duen diagnostia egin, helburuak finkatu eta ekintzetara pasatu.
- **Zein lan metodologia jarraituko duzue?** Herri mailako foro bat antolatu dugu herritarrei jarraitu beharreko prosezua azaltzeko. Herria alor tematikoetan banatu dugu: ura eta hondakinak; energia, airea eta zarata; herri plangintza; garraioa eta mugikortasuna; biodibertsitatea eta ingurumena; herri ekonomia eta enplegua eta hezkuntza.
- **Nola parte hartu dezakete herritarrek?** Herritar bakoitzak gehien interesatzen zaion taldean eman dezake izena, foroa alor tematikoen arabera banatuko baita. Gainera, edonork parte har dezake, hasiera batean ez baita derriogorrezkoa izena ematea foroetara joateko. Komunikabideen bitartez egingo ditugu deialdiak.

komikia



Kokoe 00A

[AKORDATZEN NAIZ]



MIREN VALLEJO

1923an jaioa

«Realeko jarraitzaille»

Urte mordu dira. Jarraitzaillia beti izan naiz. Bazkide izan baiño lehenago esaten nion gizonari, ?gaur ere partidua?, baiña ezin giñan juan: justuan, badakizu? Egun baten nere urtebetetzian etorri jatan tarjeta bat, halako erregalorikan nere bizi guztian ez dot hartu! Haura izango zan 1984an.

Atotxan eta Anoetan izandakua naiz, baiña haura mamitsuagua zan, hurrerago geunden, batuago geunden. Oiñ urruti gelditzen gara eta hotzagua da, eta jendia ere bai, eh! Nik ez dakitt hoztu garan edo zer pasatzen dan. Neri gustatzen jata partidua ikustia, baiña segun ze pase egitten dittuen ?mozolua haiz, ala!?, esaten diuet. Hor fulano zaguan, eta honi bota bihar ziñon. Holakuak bai, baiña bestela, gaizki esan eta hola ez. Eta gero gola sartzen badebe, ematen

dau txapligu bat ipintzen diuela jendiari azpixon, danak pozaren pozaz ixa jarlekutik aliztzen gera-eta! Asko gustatzen jata fubola. Behiñ esan zien BARRENeen ?zeozer idatzizu?, eta nik ?zer idatziko dot, ba???. Eta futbolaren gaiñian idatzi naban.

1982xan atera zaben ligia demasekua izan zan. Realta eta gero Atletixa. Atletixaren kontra ez nago.

Oiñ Artetak ematen ditt penia. Hasarre dago gaiñera, ekarri zaben bezela, izar bat zala-eta. Amorrorturen kontra dago bera!

Oiñ saltzera dixez, eta aber nunbaitetik ataritzen daben dirua. Zer nahi debe, guri ataratzia ala? Dihar egiñ izan dot: ?zuek daukazue baloria, hor dauden suelduekin eta guk, jubilaueak, pagau bihar dogu hori, ala? Entzun deixela jendia ez daguala konforme.



[GURE BERBAK]

Ni ezetzian nago

Aurreko astian, elkarrizketetan esaten jakuna baieztatzeko esaldixak ekarri genduzen hona; gaurkuan, berriz, ezetzatzekuak datoz. Batek baiño gehixagok arrunkeixatatzat joko diitu hemengo esaldi batzuk, eta hala izango da; kontua da esaldi bakoitza bere testuinguruan erabiltzia, hizketa-inguru bakoitzera egokitzia. Hona hemen batzuk:

-Eibar lehenengo maillara ixoko da aurten. -Baitta zera ere!

-Ama, gaur ordu bixetan etorriko naiz etxera. -Etza pentsau ere! (-Et, et, et!)

-Zahartu egiñ haiz. -Etza gitxiagorik ere! Ni txabalito bat sentitzen nok.

-Gaurko egunian basarriko bizimodua lehen bezelakua da. -Etza urrik eman ere!

-Aurten ere Italia aldera juango haiz oportetan. -Keba!

-Gorospe izan dok euskal txirindularirik onena. -Adarrik ez (egidak jo!)

-Aurten ondo ibilliko nok Behobia-Donostia lasterketan. -Etxakixat bal!

-Zuk baiño ?pigura? hobia dakat. -Ni ezetzian nago, ba.

-Askoz hobeto egitten juat pelotan hik baiño! -Txakurraren putza (bioliña)!

Jesus Mari Makazaga



Linazasoro7, 2. (estazio parean)
Tel.: 653 707 837 (MENDARO)
jundaneze@hotmail.com

- Altzariak
- Armairuak (enpotratuak...)
- Tallak
- Erreformak
- Eskailerak
- Ateak, lehioak
- Parket-ak, tarimak...
- Egurrezko estrukturak
- Sukaldeak



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estalita
Zaluen kolokazioa
Lakaduz: egur, aluminio, P.V.C.
Pintara orekorta

San Roke, 7 behean
Pol. Olaso - Olaso kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570



AULIA (Legorreta)

- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Santa Luziatik maiatzaren bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 140 lagun eserita nahiz zutik.

DOLAREDUN
sagardotegia

Aulia Enea baserria ☎ 943 80 60 66

EIZMENDI (Hernani)

- **NAGUSIA:** Maixa Eizmendi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirila bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 150 lagun.

DOLAREDUN
sagardotegia

Osinaga auzoa ☎ 943 55 64 05

GURUTZETA (Astigarraga)

- **NAGUSIA:** Gurutzeta S.A.T.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilera.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 120 lagun zutik.

DOLAREDUN
sagardotegia

Oialume bidea, 63 ☎ 943 55 22 42

ISASTEGI (Tolosa)

- **NAGUSIA:** Migel Mari Lasa Arostegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik maiatzera arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 200 lagun.

DOLAREDUN
sagardotegiaAldaba-Txiki auzoa, 15 ☎ 943 65 29 64
(web orria du)**KORTA** (Gabria)

- **NAGUSIA:** Inazio Korta.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte guztia.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua eta mariskoa.
- **LEKUA:** 110 lagun.



Korta sagardotegia ☎ 943 88 71 86

LARREGAIN (Hernani)

- **NAGUSIA:** Ixabel Santa Kruz.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte. Igande gauetan eta astelehenetan itxita.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 100 lagun.

DOLAREDUN
sagardotegia

Larregain etxea, Ereñozu ☎ 943 55 58 46

GOIKO-LASTOLA (Hernani)

- **NAGUSIA:** Lazaro Etxabe Zerain.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilaren bukaerara arte. Eguerditan irekita. Igande gauean eta astelehenetan itxita.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 80 lagun.



Ereñozu Auzoa ☎ 943 55 32 72

IZETA (Aia)

- **NAGUSIA:** Manuel Iruretagoiena.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urte osoan irekita, sagardotegia eta jatetxea.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua. Karta badago.
- **LEKUA:** 200 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Izeta baserria (Urdaneta bidea) ☎ 943 13 16 93

OTATZA (Zerain)

- **NAGUSIA:** Ramoni Lopetegi.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik apirilera arte. Urte osoan erretegia.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua edo norberak eramandakoa.
- **LEKUA:** 140 lagun.



DOLAREDUN
sagardotegia

Otatza baserria ☎ 943 80 17 57

HAINBAT ZERTZELADA

Tolosaldeko eskualdeak eta, bereziki, Astigarrako herriak eta honen inguruneak, sagardoa egiteko aintzinako ohiturari eusten diote. Sagardoaren prozesua, sagarrak kontu handiz aukeratuz hasten da. Dolareetan gorde eta sagarrak txikitu eta zanpatu ostean, kupelak bete egiten dira. Likidoaren hartzidurak hiru hilabete irauten du. Ondoren, sagardoa prest dago edateko. Usaia eta ezaugarriak nabarmentzeko, argitik babestuko duen botila ilunetan gorde, 13 edo 15 gradutako temperaturara atera eta, txakolina bezala, 30 edo 40 zentimetroko distantziatik zerbitzatu behar da, beiraren kontra irabiatzean, bere ñabardura guztiak aska ditzan.

Hona hemen zenbait aholku sagardotegira joaten gagerako:



- Erretserba egin aurretik zutik edo eserita jaten den jakitea komeni da.
- Gehienetan hotz egiten duenez, jertse edo beroki epelak jantzi. Oinetakoa ere, eroso.
- Edalontzia hasieran hartu eta amaitu artean mantendu.
- Txotxean, ilaran jarri eta zain egon txanda izan arte.
- Edalontzia gutxi bete eta berehala edan. Txotxerako lekuan hustu. Sagardoa gutxi eta sarri edan behar da.

SARASOLA (Astecasu)

- **NAGUSIA:** Inaxio Sarasola.
- **SAGARDOTEGI SASOIA:** Urtarriletik maiatza bukaerara arte.
- **JATEKOA:** Sagardotegiko menua.
- **LEKUA:** 180 lagun, eserita nahiz zutik.



DOLAREDUN
sagardotegia

Beballea Auzoa ☎ 943 69 02 83

[PROTAGONISTA]



Edu Arrillaga

Edu Arrillaga argazkilari elgoibartarrak bigarren saria jaso du Nazio Mailako "Certamen de Cultura Popular" argazki lehiaketan. Ohitura zaharrak edo dagoeneko desagertuta daudenak biltzea da lehiaketa honen helburua, ondoren museo etnografiko batean jartzeko. Edu Arrillagak bataioen ostean egiten den "boloa" isaltzen duten bost argazki bidali zituen, eta esan bezala, bigarren saria eman diote. Guztira Estatuko 100 argazkilari inguruk hartu dute parte lehiaketan, eta Edu Arrillaga oso pozik gelditu da 3.000 euroko sariarekin. Berarentzako sorpresa bat izan dela aitortu digu.

[NOTIZIA]

Antzerkia, desfileak eta mozorro lehiaketa izango dira lhauterietan

Otsailaren 3tik 8ra bitartean ospatuko dira aurtengo ihauteriak. Atzo, Ostegun Gizona, Pilar Ikastetxeko ikasleak izan ziren protagonistak. Arratsaldeko 15:30ean denak mozorrotuta atera ziren kalera. Gaur gauean, bestalde, Sinuose Taldeak "Sokake Tarnasa" ikuskizuna eskainiko du. Emanaldia Kultur Etxean izango da, gaueko 22:15ean.

Ihauterietako egunik garrantzitsuena bihar izango da. Atxutxiamaika Aisialdi Taldeak antolatuta, "Atxutxi Karaokea" izango da arratsaldeko 17:00etan Plaza Handian. Musikarekin jarraituz, Mauxitxa Txarangaren kalejira izango da 19:00etan, eta gauean Kiñu taldeak alaituko du Plaza Handia.



Mozorro lehiaketa

Gurutze Gorriak antolatuta mozorro lehiaketa izango da bihar gauean, eta 200 eurora bitarteko sari garrantzitsuak banatuko dituzte.

Asteartera arte, ihauteriez gozatzeko hainbat ekitaldi izango dira, erraldoi eta buruhandiak eta Gelatxo, besteak beste.

[ZENBAKIA]

70,92

2005. urtean 70,92 euro ordainduko ditugu elgoibartarrok zabor zerbitzuaren truke. Gipuzkoa mailan desberdintasun handiak daude: Deba da garestiena 100,30 eurorekin, eta Olaberria merkeena 8,30 eurorekin.

asteko [ARGAZKIA]



Aste honetan pasa da Elgoibartik zorrotzailea. Kalerik kale entzun dugu hotsa baina, lehen ez bezala, orain "modernizatua" edo "motorizatua" etorri zaigu. Izan ere, zorrotzailea bizikleta gainean guztion oroimenean gordeta dagoen irudia da. Gaur egun, aldiz, autoan sartuta egiten dute kalejira. Maleteroa, makina prest. Ganibetak eta guraizeak dira herritarrok gehien zorroztan ditugun tresnak. Esan digutenez, Estatua zeharkatzen dute alderik alde eta Elgoibartik hilean behin pasatzen dira. Hala kontatu digute, ofizioak "turista" bihurtzen dituela irribarez esanaz.

Merkadilloari buruzko erreferenduma izango da otsailaren 20an



Elgoibar Bizirik Plataformak antolatuta, merkadilloaren gaineko erreferenduma izango da otsailaren 20an. Europako Konstituzioa bozkatu behar den egun berean, beste uma bat egongo da, herritarrek merkadilloari buruzko iritzia eman dezaten. Erantzun beharreko galdera, merkadilloa Sigman ala herrian nahi duten izango da. Merkadilloko saltzaileek esan dutenez, bozketa honen emaitza aintzat hartuko dute, eta Sigamara joatea erabakitzen bada, hala egingo omen dute. Herriaren nahia betetzea da beraien helburua.

Udalaren laguntzarik gabe

Plataformako kideek Udalari erreferenduma antolatzeko laguntza eta merkadillokoekin negoziatzeko mahai ireki bat antolatzeko eskatu zieten, baina ezezkoa jaso zuten, beraien kabuz hasi dira lanean. Elgoibar Bizirik plataformakoek jendearen partaidetza eskatzen dute, behin betiko egoera honi amaiera emateko. Bestalde, argi utzi nahi dute elgoibartarren aldeko plataforma dela, ez daukatela inongo interes partikularrik, eta nahi duenak parte hartu dezakela plataforma honetan.

[MOTZ-MOTZIAN]

Korrika 14

AEK euskaltegiak herritarrei jakinarazi nahi die Korrika Laguntzaile kanpaina egiten diharduela. Horretarako, 12 euroren truke pin-a erosi daiteke, eta horrek herriko zenbait komertzioan deskontuak izateko aukera emango dio erosleari. Interesatuak AEK euskaltegira jo dezakete astelehenerik ostiralera.

Telefono bidezko timoak

Telefonikaren Zerbitzu Teknikotik deitzen dutela esanez, 90# tekla sakatzeko eskatzen dute. Honekin, beraien eginiko dei guztiak, zuri kobratuko dizkizute. Telefonikak ez omen daki timo hau nola gelditu, beraz, kontuz ibili.

Europako Konstituzioaren aurkako plataforma

Europako Konstituzioaren kontrako plataforma aurkeztuko da Elgoibarren bihar, otsailak 5, eguerdiko 12:00etan Plaza Handian. ELA eta LAB sindikatuak, Ezker Batua, Batasuna, Gazte Asanblada, Askatasuna eta Einbiou taldeak bildu dira momentuz, baina herritar guztiak daude gonbidatuta.

Hurrengo bilera, hilaren 7an, 18:30ean izango da Kultur Etxean.

Lourdeserako bidaia

Lourdeseko Ama Birjinaren Egunean, otsailaren 11n, Lourdesera joateko aukera izango da. Prezioa 26,50 eurokoa da, bazkaria bame. Autobusa goizeko 6:15ean aterako da Elgoibartik. Interesatuak deitu 943 74 08 22 (Kamele) telefonora.

San Anton jaietako zozketa

Errosario kaleko merkatariek beraien produktuekin osatutako otarre bat eta Debako Kresala Talasoterapiarako asteburu bat zozketatu dituzte San Anton jaietan. Irabazlea: 267 (erreserbakoa 1763).

Einbiou Herri Plataformaren kalejira alai



Einbiou kalejira bitxi eta alai antolatu zuen urtarrilaren 31n. Bertsolari eta trikitilariak izan ziren kalejiraren protagonistak, eta aldarrikapenak bertotan egin zituen. Honela, Plaza Handian Udalari abestu zioten, herriko bigarren indar politikoa izanik, udaletxetik kanpo daudela esanez. Plaza Txikian, autoak kendu eta jolasgunea egin behar dela abestu zuten. Osasun Zentroan beriz, euskararen presentzia urria salatu zuten, eta azkenik, Madalako Parkean gaztetxerik gabe jarraitzen dutela abestu zuten.

Inkesta

Ingalaterran egindako inkesta baten arabera, emakume argiek gizon azkarrek baino aukera gutxiago dute ezkontzeko.

Emakume argiek zailago al dute ezkontzea?

IMANOL AZPIAZU

Torneroa

40 urte



“Ez, nik ez dut sinisten. Ni soltero nago, baina ez litzaidake inportako ni baino argiagoa den emakume batekin ezkontzea. Pertsona ona izatea da inportantea.”

LOLA GUIVRE

Errepresentatea

47 urte



“Bai, egia da, batez ere 40 urtetik aurrera. Gizonari bera baino tontoagoa den emakumea gustatzen zaio gehiago, erosoago sentitzen da.”

M. CARMEN GUERRA

Ingeniaria

34 urte



“Harremana hasteko fisikoa inportanteagoa da. Gerora, emakumea azkarragoa bada, gizona ez da eroso sentitzen, eta dibortzio gehiago egoten dira.”

M. LUISA GURRUTXAGA

Langabetua

52 urte



“Ez, tontokeria bat iruditzen zait. Lehen beharbada bai, baina gaur egun oso parekatuta daude ikasketetan, eta persona orokorrean baloratu behar da.”

[BAI ala EZ]

Garabi enpresen greba justifikatua al dago?

BAI %99

EZ %1

“Besteek ere grebarako eskubidea eskatzen dugu, ez diegu bada ukatuko eskubide hori garabi enpresei, ez? Argitaratu diren kostuak egia badira, ezinbestekoa zaie “indarrezko” ekintzetara jotzea. Azkenean sufritzen dutenak betikoak dira, baina, ordagorik bota gabe, ez da lortzen ezer.”

“Posible da justifikatuta egotea baina kaltetuak herritarrak gara. Greba eskubidea denok daukagun arren, iruditzen zait kasuaren arabera neurtu behar dela. Oraingoan aseguruvekin daude hika-mikak. Zein izango da ondorioa? Datorren urtean aseguru altuagoa ordaindu beharko dugula.”

Datorren asterako....

**Duela 400 urte argitaratu zen On Kixote eleberria.
Irakurrita al daukazu?**

Erantzunak: barren@elgoibarkoizarra.com edo Barreneko postontzian.

JAIOTAKOAK



**Mikel Galarraga
Muñoz**

[Urtarrilak 5]
Xabier eta Idurre



**June Armendia
Gabilondo**

[Urtarrilak 10]
Xabier eta Maria
Angeles



**Aiala Telleria
Garcia**

[Urtarrilak 14]
Aitor eta Ana



**Alain Sanchez
Müller**

[Urtarrilak 18]
Manuel eta
Andone

Eider Ribao Viña

[Urtarrilak 4]
F. Javier eta
Blanca

**June Zubiaurre
Ortueta**

[Urtarrilak 9]
Josu eta Ivana

HILDAKOAK

Isabel Molins • [89 urte] • Urtarrilak 1
 Dominica Arambarri • [90 urte] • Urtarrilak 2
 Maria Arocena • [83 urte] • Urtarrilak 9
 Jose Enrique Barrenexea • [57 urte] • Urtarrilak 10
 Maria Ostolaza • [91 urte] • Urtarrilak 12
 Josefina Gutierrez • [61 urte] • Urtarrilak 12
 Luken Artegi • [83 urte] • Urtarrilak 12
 Luis Fernando Santolaya • Urtarrilak 16
 Agustin Urain • [70 urte] • Urtarrilak 16
 Felicia Navarro • [80 urte] • Urtarrilak 21
 Jose Maria Mendizabal • [88 urte] • Urtarrilak 21
 Luisa Zabaleta • [91 urte] • Urtarrilak 21
 Juanita Osoro • [75 urte] • Urtarrilak 22
 Tomas Azpeleta • [81 urte] • Urtarrilak 23
 Mari Arostegi • [78 urte] • Urtarrilak 28

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua

OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
 Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56
 (Mobila) 608 77 07 01



IRAKASLEARI azterketa

Hezkuntza Bereziko irakaslea

ANDONIÑE ZUBIKARAI




- 1 **Zergatik irakasle?**
Nire familian irakasle asko dago eta gustatu egiten zaidalako. Zer ikusi, hura ikasi!
- 2 **Irakasle izatearen alderik onena?**
Umeei gauzak erakutsi ahal izatea.
- 3 **Eta txarrena?**
Askotan pazientzia handia eduki behar da, eta norberaren egoera ez da beti berdina izaten.
- 4 **Irakasle ez bazina?**
Ez dut sekula pentsatu, aukera banu, berriz ere irakasle!
- 5 **Irakasle on baten ezaugarriak?**
Bere lanean sinistea, pazientzia, eta umeengana iristen jakitea.
- 6 **Ikasleek zuk esandakoa egiten ez badute?**
Bururatzen zaizkidan trikimailu guztiak erabiltzen ditut konbentzitzeko.
- 7 **Irakasle gogorra al zara?**
Duela gutxi esan zidaten exijentea naizela, baina hori ona da.
- 8 **Jubilatu arte irakasle?**
Bai. Beharbada espezialidadea aldatuko nuke, baina osasunak laguntzen badit, irakaskuntzan jarraituko dut.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



NEKANE ZABALA ama



IÑIGO ARMENDIA semea

GALDERAK

- | | | |
|---|--|-------------------------------------|
| 1. Zer ekarri dizu Olentzerok? | 1. Bitxiak gordetzeko kutxa. | 1. Eskularruak. |
| 2. Zein izan da ikusi duzun azken pelikula? | 2. Umearekin ikusitakoren bat. | 2. Los increíbles. |
| 3. Zein liburu irakurtzen ari zara? | 3. Los secretos ocultos del Código da Vinci. | 3. Ez zait irakurtzea gustatzen. |
| 4. Mozorrotuko al zara ihauterietan? | 4. Aurtengoan ez dut uste. | 4. Bai, bakeroz jantziko naiz. |
| 5. Jan al zenuen San Blas opilik? | 5. Zati txiki bat, ez zait asko gustatzen. | 5. Bai, aitxitzak ekarritakoa. |
| 6. Nora joango zinateke oportetan? | 6. Italiara. | 6. Kanariasera, hondartzara juteko. |
| 7. Ibili al zara elurretan jolasean? | 7. Ez, etxean egon gara. | 7. Ez, leihotik ikusi dut. |
| 8. Negua ala uda duzu nahiago? | 8. Uda: beroa, eguzkia eta hondartza. | 8. Negua, hotza gustatzen zait. |

TXIKI inkesta

Zein famatu izatea gustatuko litzaizuke?

Jose Andoni Garcia
LH 6

Pele, futbolari oso ona eta famatua izan zelako, eta gaur egun ere oso gizon garrantzitsua delako.



Ane Kortaberria
LH 5

Kontxu Odriozola, aktore ona eta barregarria delako, eta hitz oso barregarriak asmatzen dituelako.



Ariana Nogales
LH 5

Natalia Sanchez, aktore eta pertsona ona delako. Nagusitan bera bezalako izatea nahi dut.



Imanol Cid
LH 6

Lance Armstrong. Ni ere txirrindularia naiz eta bera bezalako profesionala izan nahi dudalako.



LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

'GIPUZKOA ZURE ESKU'

mahai jokoa + CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Borja Diez**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com

GAZTIA NAIZ

lotsagabe

Imanol Konde 17 urte

Lagunen artean ba al daukazu moterik?
Batzuk Manolo deitzen didate, baina gehienek Imanol.

Lotsagabea al zara?
Ez, oso lotsatia naiz.

Gustuko duzun pelikula?
Scary Movie 3.

Azken kontzertua?
Kaotiko ikusi nuen Zarautzen.

Etxean amari laguntzen al diozu?
Ez, etxean ez dut ezer egiten.

Gaua ala eguna?
Gaua, parrandak egiteko hobea da.

Hondartza ala mendia?
Hondartza.

Zenbat azterketa suspenditu dituzu?
Joan zen ebaluaketan lau, uste nuena baino gehiago.

Handia zarenean zer izatea nahiko zenuke?
Ez dakit. IMHn modulo bat egingo dut, eta gero ikusiko da.

Zein izan da zure ametsgaiztorik txarrena?
Itsasoan ito egiten nintzela.

Zer esango zenioke gustuko duzun neska bati?
Ezer ere ez, berak zerbait esan arte itxarongo nuke.

Eta berak zer esatea gustatuko litzaizuke?
Edozer gauza, berak eman dezala lehenengo pausua.

Afari erromantiko batentzako banda sonora?
Musika klasikoa jarriko nuke.

Mozorrotuko al zara ihauterietan?
Ijitoz janzteko asmoa neukan baina azkenean ez naiz mozorrotuko.

Aurpegia estalita ala ezagutzeko moduan mozorrotzea duzu gustuko?
Aurpegia estalita, inork ez ezagutzeko moduan.

Lehenengo muxua gogoratzen al duzu?
Bai, hori ez da ahazten.

BARREN

arGAKiekietan...

SAN JUAN BOSKO eguna



1 Sukalderako daukaten abilezia erakutsi zuten ikasleek. Patata-tortillek sekula itxura zuten!

2 Elgoibar BH Institutuko ikaslez osatutako txaranga estreinakoz atera da aurten kalera. Egiten zuen hotz polarrari aurre egiteko medizinarik onena: Pakito Txokolatero!



3 Era guztietako goitibeherak aldapan behera. Imaginazioa boterera eta ubeldurak ipurdira!

4 Eutsi goiari neskak, pauso bat ere ez aurrera! Sokatiran ere majo saiatu ziren neska-mutilak!



LUIS GOENAGA

FRATRONIK-eko ZUZENDARIA

«Next proiektuaren bidez makina ekologikoak sortu nahi ditugu»



Fatronik Fundazioa, orain dela 18 urte sortu zen irabazi-asmorik gabeko zentro teknologikoa da. Europear Batasunak baietza eman ostean, oraintsu jarri du martxan lau urtez luzatuko den Next proiektua. Honakoa, erreminta makinaren alorrean eta ikerkuntzaren mailan jorratu den ekimen handiena izango da. Hori dela-eta, Luis Goenaga, Fratronic-eko Zuzendaria ekarri dugu gure artera. Berak eman digu proiektu honen berri eta, bide batez, erreminta makinaren nondik norakoaz, orainaldiaz eta etorkizunaz ere mintzatu gara.

🚀 Next proiektua sortu duzue. Zein da helburua?

Batetik, ingurunearekin bat egiten duten makinak garatu nahi ditugu, makina ekologikoak, kutsatuko ez dutenak. Horrez gain, autonomia handiko makinak egin nahi ditugu, makina automatikoak izateaz gain, erabiltzaileak ere oso modu errazean arituko dira. Makina hauek, gainera, produktibitate eta kalitateari dagokionean oso maila ona eskainiko dute.

🚀 Zenbat bazkide ditu proiektuak?

Hogeita bost guztira. Enpresak, zentro teknologikoak, unibertsitateak, finantza kudeatzaileak... Fatronik zentruaz gain, Danobat Taldea, Ona Electroerosión, Kutxa, Itec aholkularitza, AFM eta Invema CECIMO Europear Elkartearen bitartez eta Tekniker zentroa elkarlanean arituko dira.

🚀 Nola finantzatuko da?

Proiektuaren aurrekontua hogeita lau milioi eurokoa da eta finantzaketa partekatuta izango da: Europear Batzordeak %60 jarriko du, Inbertsiorako Banku Europearreko jatorria duen diru pribatua eta bazkideena %30 izango da eta gainontzeko %10a beste estatu

mailako programen diruarekin estaliko da.

🚀 Zertan lagunduko dio proiektu honek erreminta makinari?

Erreminta makinaren kontzeptualizazioan, diseinuan eta eraikuntzan fabrikatzaile ez europarren aurrean lehiatu ahal zango dugu, bai guk eta baita erabiltzaileek ere.

«Erreminta
makinak beti
jakin du egoe-
ra zailei aurre
egiten»

Horrez gain, makinaren diseinu, fabrikazio eta erabilpenerako oinari berri batzuk ezarriko dira: kontsumoaren, hondakinen, eta zarataren murrizketa, birziklagarritasuna... Are gehiago, emakumearen integrazio azkar eta

errazagoa ere bultzatuko da inginerutzaren alorrean.

🚀 Zein da sektorearen egungo egoera?

Munduko ekoizpen sistema ekialderantz ari da mugitzen eta, ondorioz, makinaren eskaera eta erosleak orain arte guretat zailagoak izan diren merkatuetan bilatu behar ditugu. Bestalde, herrialde horietatik geroz eta makina gehiago datoz gure betiko merkatuetara. Honek guztiak egoera zail batean kokatzen gaitu. Hala ere, erreminta makinaren sektoreak beti jakin izan du egoera gogorrei aurre egiten eta oraingoan ere asmatuko dugu. ERABERRITZE garaia da, hizki handiekin.

🚀 Zertan oinarritzen da Eraberritze hori?

Fatronik pertsoez eta adiskideez osatzen den proiektu bat da. Irabazi asmorik gabeko erakundea garen heinean, jakintza sortu eta geureganatu nahi dugu, eraberritze industrial lehiakorrek sortuz, teknologia berriak transmitituz eta enpresa berriak bultzatuz. Gure helburua ondasuna, ongizatea eta gizartearen, bezeroen eta pertsonen satisfazioa lortzea da.



570

baino gehiago gara Elgoibarren

Gure hizkuntzaren alde egiteko prest gaudenok.
Gure herriaren etorkizuna euskaraz bizi nahi dugunok.

BAZKIDE IZAN NAHI?

Bazkide izan nahi badozu, idatzi “Nik ere bazkide izan nahi dot”
elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.com helbidera
edo deitu 943 74 16 26 telefonora.
Hortik aurrerakoak gure kontu.



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartearen aldeko BAZKIDE KANPAINA

ANDER VILARIÑO AUTO GIDARIA

«Polita litzateke familia bereko bi generazio Europako Txapelaldun izatea»



Ander Vilariño (24 urte) 1 Formulako pilotu izateak hurbilen egon den euskalduna da. Lau urterekin gidatzen ikasi zuenetik abiadura zainetan darama hondarbitarrak eta aitak, Andres Vilariñok, Europako Mendi Txapelketan lortutako lau tituluak gainditzeko prest dago. Elgoibar BH Institutura egin zuen bisita aprobetxatu genuen Ander elkarrizketatzeko.

👉 Zaila al da 1 Formulako pilotu izatera iristea?

Munduko 20 futbolaririk onenen artean egotea modukoa da. Pilotu ona izateaz gain, palmares garrantzitsua behar da eta bidean diru asko laga baleko pilotua zarela frogatzeko. Konplikatuena, ordea, gaitasuna frogatzeko aukera hori izatea da.

👉 Izan al duzu aukerarik 1 Formularen aritzeko?

lazko urte erdiraino banuen aukerarik, batez ere 2003. urte bukaeran, Nissan World Seriez delakoan emaitza oso onak lortu bainituen; hiru "pole" eta bi garaipen. Behin gaitasuna erakutsita aukera hor zegoen, baina instituzioengan eragiteko boterea zuen jendeak beste bide bat jarraitzea erabaki zuen punta-puntan lehian zebilen pilotuari babesa eman baino. Jende honek talde bat sortu zuen, Epsilon. Ni ez naiz beraien produktu bat, talde hau nik zirkuituetan dudan bide luzeari eta lorpen ugariari esker sortu zen eta hau ez zuten gustuko. Orain, talde hau pilotu kanpotarrekin doa aurrera Euskadiren laguntzarekin, eta lau urtean bost Fernando Alonso sortuko dituztela sinistarazi nahi diote jendeari. Nola lortuko duten ikusi nahi nuke, pilotu bat 1 Formulako ateetan edukitzea ez baita

gauetik goizera sortzen, lasterketa eta maila ezberdin askotan lehiatuz baizik. Beharrezkoak dira 7-8 urte gutxienez.

👉 Aurten zer txapelketatan parte hartuko duzu?

Europako Mendi Txapelketan parte hartuko dut Formula 3000-an. 11 lasterketa dira 9 herrialde ezberdinetan. Nire aitak lau aldiz irabazi du txapelketa hau. Tradizio familiarra daukagu eta polita izango litzateke familia bereko bi generazio Europako txapelaldun izatea. laz bi lasterketetan parte hartu nuen. Batean errekorra hautsiz irabazi nuen eta bestean 2. postuan sailkatu nintzen

👉 Nolako da gidatuko duzun autoa?

World serietan erabili nuena baino arinagoa eta potentzia handiagokoa izango da, beraz, baita azkarragoa ere. 550 kiloko pisua 500 zaldiko indarrak mugitzen du. 3.000 zentimetro kubikoko motorra du eta zirkuituan 330 kilometro orduko abiadura har dezake. Mendiko errepideetan, ostera, 260 k/h.ko abiadura.

👉 Zein dira zure ezaugarriak ?

Beti %100ean lehiatzen duen pilotua naiz. Biurgune, martxa aldaketa edo balaztatze bakoitzean dena ematen saiatzen naiz. Errebuelta bakoitza azkena izango balitz moduan hartzen dut.

«Errebuelta bakoitza azkena balitz moduan hartzen dut»

MORKAIKO IRTEERA

46 lagun izan ziren Karrantzako bailaran



Hurrengo irteeran mendia eta parranda uztartuko dituzte.

Bizkaia eta Kantabria arteko mugan dagoen Karrantzako bailara ezagutu zuten Morkaiko Mendizale Elkartearen azken irteerara joan ziren 46 lagunek. Eguraldiak bista ederretaz gozatzeko aukera eskaini zien: ipar aldean itsasoa eta hegoalderantz Karrantzako bailara berdea, Zalama, Balgerri eta Ansoneko mendi elurtuak. Bost orduko ibilbidea burutu ostean, Pozalaguako haizuloa bisitatuz amaitu zuten eguna.

Sagardotegira irteera

Hurrengo irteera otsailaren 19an izango da. Lehendabizi Donostia eta Pasai San Pedro arteko kostako bidea egingo dute oinez. Gero Hemaniko Otsue-Enea sagardotegian berreskuratuko dituzte indarrak. Autobusa goizeko 9:00etan aterako da Plaza Handitik. Izena emateko epea zabalik dago jadanik. Bazkideentzako 30 euro izango da eta 35 euro Morkaikoko bazkide ez direnentzat.



Igerilari elgoibartarrak bikain

Elgoibar Igeriketa Taldeak Azkoitiko Igeriketa Txapelketan parte hartu zuen urtarrilaren 29an. Ane Espillak 54"48 denbora egin zuen 50 metrotako Bular estiloan eta Mikel Gurrutxagak 1'01"76. Eneritz Aizpitarrek 100 metro bular estiloan 1'54"95 eta Josu Espillak 1'54"60. Azkenik, 4x50 metro libretako erreleboetan M. Barrenetxea, APascual, A. Agirre eta E. Aizpitarrek 3'00"02 egin zuten.

Astunera eski irteera

Gaz-T Aisialdi Taldeak Eta Elgoibarko Izarrak Astunera eski irteera antolatu dute. DBH 1,2,3. eta 4. mailako ikasleei zuzenduriko irteera otsailaren 19an izango da. Sigmako zubitik aterako dira goizaldeko 5:00etan eta bueltako ordua egun bereko 22:00etan izango da. Izena emateko epea otsailaren 11n amaituko da. Prezioa: 50 euro material alokairuarekin edo 45 euro material alokairu gabe. Informazio gehiago aiora@elgoibarkoizarra.com edo 943 74 16 26 (Aiora) telefonoan.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Haundi 2 - Eibar 3 (3. maila)
 Eibartarrak 1 - Elgoibar 4 (1. erreg.)
 Bermeo 2 - Elgoibar 3 (Jub.)
 Amaiak Bat 2 - Elgoibar 5 (Kad.)
 Elgoibar 2 - Aretxabaleta 1 (Inf. A)
 Elgoibar 4 - Sanse 3 (Inf. B)
 Urko 6 - Elgoibar 2 (Aleb.)
 Elgoibar 7 - Urola 2 (Neskak F-8)

PILOTA

Euskal Herriko Liga

Lagunak 11 - Aurrera 30 (Jub. nesk. palaz)
 Aurrera Saiatz 22 - Lagunak 7 (Jub. banaka)

Udaberri Txapelketa

Zarautz 6 - Lagunak 22 (Kad.)
 Hemani 2 - Lagunak 22 (Nag.)

ESKUBALOIA

Ereintza 7 - Sanlo 12 (Inf. nesk.)
 Pagoaga Sanlo 17 - Urdaibai 16 (Kad. nes.)
 Cometel Sanlo 15 - Urdaibai 24 (Jub. nes.)
 Tecnomeca Sanlo 30 - Bidasoa 23 (Kad. mut.)
 Urola 19 - Pneumax Sanlo 13 (Jub. mut.)
 Sanlo 35 - Leizaran 13 (Sen. nes.)
 ANIT Sanlo 34 - Urola 17 (Sen. mut.)
 Portugalete 18 - Tecnifuelle 30 (Sen. mut.)

[AGENDA]

FUTBOLA, Mintxetan

Zapatua, 5
 16:30 Elgoibar - Baracaldo (Jub.)

ESKU PILOTA, Ikastolako frontoian

Euskal Herriko Liga
Barixakua, 4
 21:00 Lagunak - Lemoa (Jub. binaka)
Udaberri Txapelketa
Barixakua, 21
 21:45 Lagunak - Oiarpe (Kad.)
 22:30 Lagunak - Lazkao (Nag.)

ESKUBALOIA

Zapatua, 5
 13:30 Umobitza Sanlo - Arrasate (Inf. mut.)
 17:00 Tecnifuelle - Egia (Sen. mut.)

OHARRA

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna asteazken eguerdiko 13:30a da.



- Arrasateko enpresak **abokatua** behar du. **Erref. 162005001014**
- Arrasateko enpresak **kazetaria** behar du. **Erref. 162005001000**
- Zumaiako enpresak **hotz industria-leko teknikaria** behar du. **Erref. 162004010229**
- Zumaiako enpresak **mekanikoa** behar du. **Erref. 162005000840**
- Zumaiako enpresak **soldadorea** behar du. **Erref. 162004010231**
- Zumaiako enpresak **galdaragilea** behar du. **Erref. 162004010232**
- Eibarko enpresak **saltzailea** behar du. **Erref. 162005000807**
- Mutrikoko enpresak **kutzazaina** behar du. **Erref. 162005000914**
- Eibarko enpresak **tomurako langilea** behar du. **Erref. 162005000918**
- Bergarako enpresak **idazkaria** behar du. **Erref. 162005000922**
- Eibarko enpresak **bidaiari agentziarako teknikaria** behar du. **Erref. 162005000898**
- Elgoibarko enpresak **soldadorea** behar du. **Erref. 162005000804**
- Elgoibarko enpresak **metalerako langilea** behar du. **Erref. 162005000801**
- Debako enpresak **peoia** behar du. **Erref. 162005000587**
- Debako enpresak **pala kargatze-ko gidaria** behar du. **Erref. 162005000589**
- Debako enpresak **homigoiatarako langilea** behar du. **Erref. 162005000594**
- Arrasateko enpresak **iturgina** behar du. **Erref. 162005000759**

Hautagai moduan sartzeara eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'langai'-k Elgoibarren dituen zentru laguntzaile hauek batera deitu: Elgoibarko Institutua (Peio Juaristi) **943 74 80 19** edo IMH (Nora Ramón) **943 74 41 32** telefonora.

[LANA]

ESKAERA

- † Soldadorea eta 2. mailako ofiziala, Elgoibar, Eibar edo Deban lan egiteko prest. ☎ **661 225 149**
- † Emakumea garbiketa lanak egin, nagusiak edo umeak zaindu, edo etxe-ko lanetarako prest. ☎ **660 92 75 66**
- † Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarateak...), edo etxe-ko lanetarako prest. ☎ **660 28 27 93**
- † Erizain laguntzailea gaixoak edo nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean, gau edo egunez. ☎ **686 226 274**
- † Emakumea garbiketa lanak egin (tabernak, elkarateak...), nagusiak edo haurrak zaintzeko prest. 10:30etik 17:30era, asteburvak bame. ☎ **618 37 91 47**
- † 37 urteko gizona baserrian lan egin, nagusiak zaindu edo beste edozein lanetarako prest. ☎ **699 71 28 97**
- † Emakumea lanerako prest. ☎ **677 05 99 99**
- † Emakumea edozein lan egiteko prest. Arratsalde, 14:30-17:00. ☎ **665 755 211**
- † Emakumea orduka garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **665 72 20 76/943 53 15 76 (gavez)**
- † Emakumea umeak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **660 91 94 23**
- † Emakumea etxe-ko lanak edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **650 82 92 46 (eguerdi/gavean)**
- † Pertsona bat arratsaldean lan egiteko prest. ☎ **636 923 990**

ESKAINZA

- † Mutil euskalduna behar da asteburuetan barran lan egiteko. ☎ **670 654 921**
- † Euskaraz dakien neska behar da dendan lan egiteko. ☎ **943 74 36 08**
- † Kamareroa behar da egunero lan egiteko. Kontratua eta oporrek. ☎ **652 77 82 60**
- † Neska behar da jatetxean eta barran lan egiteko. ☎ **635 75 16 42**
- † Jatetxerako sukaldaria eta kamareroa behar dira. ☎ **943 12 12 62**
- † Tailer mekanikorako langile-ikaslea behar da. ☎ **902 10 32 87**
- † Eibarko tabernarako pertsona euskalduna behar da. Autoa ezinbestekoa. ☎ **943 70 19 95 (22:00etatik aurrera)**
- † Kamareroa behar da. ☎ **943 74 10 12**

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

- † Etxea salgai San Frantzisko kalean. Sukaldea, egongela, komuna, bi logela, despentsa. Eguzkitsua. Bizitzera sartzeko moduan. Prezioa adosteko. ☎ **699 29 36 13**
- † Pisia salgai Artetxen (Inñigez de Karkizano kalean). Berritua, altzariekin, dena kanpora begira, ganbareekin. ☎ **627 94 12 61**
- † Etxea salgai Urasandin. 90m². Dena kanpora begira. Terraza, 2 komun, 3 logela, egongela. ☎ **943 74 08 26**
- † Etxe adosatua salgai. Dena berritua. 217m². 48 milioi. ☎ **686 22 84 04**
- † Etxea salgai Madalan. 64m². Eraikuntza berria, bi logela, komuna, egongela, sukaldea, trasteroa eta gara-jea. ☎ **677 24 39 61 (18:00etatik aurrera)**
- † Pisia salgai Sigman. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. Prezioa adosteko. ☎ **685 76 61 54/943 74 29 21**
- † Etxe berritua salgai Sorraluzen. Komunak eta sukaldea amueblatuta. Gara-jea, entreplanta eta txokoa. 144m². ☎ **615 77 99 20**

ALOKAIRUA

- † Martxo eta apirilera pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ **649 03 12 71**
- † Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibar, Mendaro edo Eibarren. ☎ **687 05 38 11**
- † Pisia alokatzen da Urasandin. Egongela, sukaldea, bi komun, 3 logela. ☎ **943 74 15 27**

[LOKALAK]

- † Gazte koadrila batek lokala hartuko luke alokairuan. ☎ **678 118 695**

[GARAJEAK]

- † Garaje komunitarioa alokatzen da San Roke auzoan. ☎ **653 73 94 67**

[SALEROSKETAK]

- † Citroen C2, 1.4 auto beltza salgai. Bi urteko garantia. Merkea. ☎ **943 74 23 63**
- † Bikintzako kotxe silla salgai. Inglesina markakoa. (silla, grupo 0, zakuak, burbujak...) ☎ **636 12 95 43**
- † Opel Vectra 2.0, 115cv. salgai. 240.000km. Egoera onean. 2200 euro. ☎ **656 70 29 59**
- † Bi eskopeta eta 5 tiroko errepetidora salgai. ☎ **943 74 00 79**
- † 4 kaxa Veterano, 4 MG, kaxa bat Explendido, kaxa bat 103 salgai. Prezioa adosteko. ☎ **635 75 16 42**
- † Bigarren eskuko Corbero izozkailua salgai. Oso egoera onean. 91x70 (270 litro). 130 euro. ☎ **943 74 23 39**
- † Kenwood markako irratia kaseta salgai. 6 CDrentzako kargadora. Egoera onean. 150 euro. ☎ **626 588 482 (Imanol)**
- † Toshiba Satellite A6521 ordenagailu portatila salgai. 4 hilabete. 15" pantaila. 600 euro. ☎ **650 34 44 28 (Ibon)**

[PARTIKULARRAK]

- † 2. hezkuntza, 4. mailako matematika eta fisika klaseak jasoko nituzke. ☎ **629 40 32 34**

[BESTERIK]

- † Zinean giltz batzuek aurkitu genituen hilaren 30ean. Udaltzaingoa daude.
- † Urtarrilaren 6an Trenbide eta Bernardo Ezenarro kalean artean kamiseta termikoa galdu nuen. Urdin iluna, Helly Hansen markakoa. ☎ **610 904 371**
- † Zilar koloreko pulsera galdu dut. Balore sentimental da. Sarritu egingo da. ☎ **619 04 56 46 (Begoña)**
- † Erretxindin perikito batek ihes egin zuen hilaren 19an. Hankan eraztuntxo bat dauka. ☎ **943 74 25 51**
- † Taberna alokatzen da Elgoibarren. ☎ **943 74 03 92**

[AGURRAK]



† Zorionak **Ariana**, hilaren 30ean 11 urte bete zenituelako. Gurasoen eta bereziki, Anderren partez.



† Zorionak **Aitor**, gaur, hilak 4, 6 urte egin dituzulako. Familiakoan, anaia lker eta Alaitz eta Irati lagunen partez.



† Zorionak **Nora Sota** otsailaren 6an bi urte egingo dituzulako. Familiakoan, eta bereziki, lehengusuen eta Ane ahizparen partez.



† Zorionak **Ander!** Nola pasatu den denbora, eh? otsailaren 2an 4 urte handi! Familiakoan eta bereziki, Gorkaren partez.



† Zorionak Elgoibarko neska politxena! Txipirona!



† Ikusten duzun bezala ez gara zutaz ahaztu. Zorionak **Plantxil** Tragotxo baten zain gelditzen gara, txipirona!



† Aupa **Javil**, urte bat gehiago! Orain bai sasoia desbrozadora bizkarrean jartzeko! ja, ja... aurten gurea zara. Zorionak!



† Zorionak **Naroa**, otsailaren 3an urtebete egin zenituelako. Familiakoan partez.



† Pilar ikastetxeko haur hezkuntzako irakasle eta ikasle guztion partetik zorionak **Ainhoa Sanchez!** egun on bat pasa!



† Pilar ikastetxeko lehen hezkuntzako irakasle eta ikasle guztion partetik zorionak **Itziar Blanco!** egun on bat pasa!



† Zorionak **Malen**, bihar, otsailak 5, 3 urte egingo dituzulako. Familiakoan partez.



† Zorionak **Rubial!** Ea aurten ere horrelako guapa ikusten zaitugun. Zorionak! ja, ja, ja...



† Zorionak **Koldo** urtarilaren 31n 7 urte egin zenituelako. Familiakoan partez.



† Zorionak **Naiara** otsailaren 2an bi urte bete zenituelako. Familiakoan eta bereziki, anaia lbonen partez.



† Zorionak **amama Antigua eta Alejandro Berazal** Familiakoan eta, bereziki, izugarri maite zaituzten Adriana eta Pedroren partez.



† Oviedora etorri zineten guztiei eta zuen etxeetatik gurekin akordatu zinetenei, mila esker bene-benetan. Zuengatik ez balitz... Arianne, Amaia, Nerea eta Loreren partez.

† Zorionak **Oihane Urain** otsailaren 7an 3 urte bete-gotuzulako. Familiakoan partez etxeko karameloari!



BEKAK

TXINAN MBA BAT IKASTEKO 5 BEKA

La Caixa fundazioak 5 beka banatuko ditu Txinan MBA bat ikasi nahi dutenen artean. Goi mailako tituloduna izan behar da. Gutxienez 2 urteko egun osoko lan esperientzia dutela egiaztatuz behar dute eta ingelesa menperatu. 1969ko ekainaren 30aren ondoren jaiotakoek soilik egin ahal dute eskaria. Iraupena 17 hilabetekoa da. Zenbatekoa: hegazkina, matrikula eta hileko 825 euro. Epea: ekainak 30. www.estudios.laCaixa.es

LANA

BARNE ANTOLAKETAREN KUDEAKETARAKO TEKNIKARIA ELGOIBARKO UDALERAKO

Barne antolaketaren kudeaketarako teknikari lanpostua betetzeko deialdia egin du Elgoibarko Udalak. Baldintzak: zuzenbide, ekonomia edo politika zientzietan lizentziatua. Euskarako 4. hizkuntza eskakizuna izan behar du. Epea: otsailak 17. Informazioa: www.elgoibar.org

IKASTAROAK PHOTOSHOP IKASTAROA

Foru Aldundiak Photoshop ikastaroa antolatu du. Otsailak 19, 26 eta martxoak 5ean Anoeta Pasealekuko Gaztegunean. Epea: otsailak 16. Zenbatekoa: 12 euro. Informazioa: www.gipuzkoa.net/gazteria

ARGAZKILARITZA DIGITALA

Arrasateko Udalak Argazkilaritza digitalari buruzko ikastaroa antolatu du. Otsailaren 15ean hasi eta martxoaren 17ra bitartean irauko du, astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. Zenbatekoa: 20 euro, ikasle eta langabetuek 12 euro. Informazioa: www.arrasate-mondragon.org

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
☎ 943 741 461

🕒 Asteartetik-ostiralera: 16:30-19:30

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]



6 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

	EGUNEZ	GAUEZ	KANPOKO FARMAZIAK
4	Etxeberria (Santa Ana)	Etxeberria	IBÁÑEZ Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
5	Fernandez	Fernandez	
6	Fernandez	Fernandez	FERNANDEZ Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
7	Yudego	Yudego	
8	Zabaleta	Zabaleta	
9	Etxeberria (Errosario)	Etxeberria	ZABALETA Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
10	Ibañez	Ibañez	
11	Bidasolo	Bidasolo	



[TELEFONOAK]

OSASUNA	BESTELAKOAK
Anbulatorioa 943 03 26 10	Elgoibarko Izarra 943 74 16 26
Larrialdiak 943 46 11 11	Kiroldegia 943 74 44 15
Planning-a 943 74 29 50	Kontsumo Bulegoa 943 74 30 88
Alkoholiko Anonimoak 943 74 03 85	Liburutegia 943 74 35 25
D.Y.A (anbulantzia) 943 46 46 22	Musika Eskola 943 74 21 45
Gurutze Gorria 943 74 38 64	Mintxeta 943 74 43 15
Mendaroko Ospitalea 943 03 28 00	Parrokia 943 74 08 42
Odol Emaileak 943 74 39 36	Postetxea 943 74 15 47
	Gazte Informazioa 943 74 14 61
	KZ gunea 943 74 88 28
UDALA	ADINEKOEN ETXEAK
Euskara Zerbitzua 943 74 43 66	San Lazaro Egoitza 943 74 02 96
Kultura Zerbitzua 943 74 21 58	Zaharren Biltokia 943 74 05 26
Hirigintza 943 74 43 84	Eguneko Zentroa 943 74 45 65
Epaitegia 943 74 16 30	
Haziena 943 74 44 14	
Mendaroko Udala 943 03 32 82	
Ongizate zerbitzua 943 74 10 08	
Udaletxea 943 74 10 50	
Udalizaingoa 943 74 13 94	
Debemen 943 74 40 67	
GARRAIOAK	IKASTETXEAK
Eusko Trenbideak 943 74 04 42	Haur Eskola 943 74 21 41
PESA (Eibar) 902 10 12 10	HII (EPA) 943 74 08 80
Taxi geltokia 943 74 08 98	Herri Eskola 943 74 08 79
Bizkaibus 902 222 265	LM.H. 943 74 41 32
	Institutua
	Arreiture 943 74 80 19
	Ezenarro (Meka) 943 74 80 19
	Ikastola 943 74 44 41
	Pilar Ikastetxea 943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA
Astegunak: 7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00
Igandek eta jaiegunak: 9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40
Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandek eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburu eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
EUSKOTREN: 943 74 04 42

SIGMA - ARRIAGA
Astegunak: 9:25, 11:10, 12:10, 13:10, 18:20, 19:10
Larunbat lanegunetan: 8:00, 11:20, 12:20, 13:20
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ARRIAGA - SIGMA
Astegunak: 9:55, 11:40, 12:40, 18:10, 19:00
Larunbat lanegunetan: 8:10, 11:10, 12:10, 13:10
EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK
EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA
 1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR
 12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR
 12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR
 1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[4 BARIXAKUA]

14:30 SANTA ESKEA

Baserriz baseri
 Irteera: Plaza Handitik
 Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

15:30 SANTA AGEDA BEZPERA

Ikastolako haurren kalejira
 Ikastolatik Plaza Handiraino
 Antolatzailea: Elgoibarko Ikastola

16:00 SANTA AGEDA BEZPERA

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak patioan bilduko dira bertsok kantatzeko

Pilar Ikastetxeko patioan

Antolatzailea: Pilar Ikastetxea

22:15 SINUOSEREN IKUSKIZUNA

“Sokake Tamasa”
 Kultur Etxeko sotoan

[5 ZAPATUA]

9:00 SANTA ESKEKO “ETXEGINA” TALDEAREN KALEJIRA

Irteera: Bolatokitik

12:00 EUROPAKO

KONSTITUZIOAREN KONTRAKO PLATAFORMAREN AURKEZPENA

Plaza Handian

17:00 ATXUTXI KARAOKEA

Plaza Handian

Antolatzailea: Atxutxiamaika Taldea

19:00 MAUSITXA TXARANGAREN KALEJIRA

SINOPSISIAK

«Obsesion»



22:00 KIÑU TALDEAREN

DANTZALDIA

Plaza Handian

22:45 MAUSITXA TXARANGAREN

KALEJIRA

Plaza Handian

Antolatzailea: Atxutxiamaiika

Taldea

24:00 MOZORRO LEHIAKETA

Plaza Handian

Antolatzailea: Gazteen Gurutze

Gorria

Izen ematea: Otsailaren 5ean, goizez, Gurutze Gorrian

[6 DOMEKIA]

**18:00 GELATXO ORKESTRAREN
DANTZALDIA**

Jubilatuen Etxean

[8 MARTITZENA]

**15:00 IHAUTERI MARTITZENA
PILAR IKASTETXEAN**

Ikasleek prestatutako dantzak eta koreografiak

**15:15 IKASTOLAKO HAUREN
EUSKAL IHAUTERIA, KALEJIRA ETA
DANTZA SAIOA**

Plaza Handian

16:30 MOZORROEN ELKARTZEA

Plaza Handian

17:00 KLAKET IKUSKIZUNA

Taldea: Hortzmuga teatroa

Plaza Handian

18:00 MAUSITXA TXARANGAREN

KALEJIRA

Erraldoi eta buruhandiekin

18:00 GELATXO ORKESTRAREN

DANTZALDIA

Jubilatuen Etxean

Tartean Mozorro Lehiaketa

[10 EGUENA]

19:00 BILERA

Norentzat: Lehen Hezkuntzako 6.

mailako ikasleen gurasoentzat

Partehartzaiilek: DBHko ikasketa

buruak, DBHko koordinatzaileak

eta ikastetxeko orientatzaileak

Elgoibar BH Institutuko liburutegian

(Arreiture Institutuan)

[11 BARIXAKUA]

22:15 ANTZERKIA

Izenburua: "Perez y Fernandez"

Taldea: Zanguango Teatroa

Herriko Antzokian

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Obsesión»

4, barixakua: 22:15

5, zapatua: 19:30-22:15

6, domekia: 19:30-22:15

7, astelehena: 19:30-22:15

«5 chicos y esto»

6, domekia: 16:30

«La historia del camello que llora»
(Z.K.)

10, eguena: 22:15

EIBAR, UNZAGA

«El Aviador»

4, barixakua: 18:30-22:00

5, zapatua: 18:30-22:00

6, domekia: 18:30-22:00

7, astelehena: 21:00

8, martitza: 21:00

9, eguaztena: 21:00

EIBAR, RIALTO

«El Mensajero del Miedo»

4, barixakua: 19:30-22:15

5, zapatua: 17:00-19:30-22:30

6, domekia: 17:00-19:30-22:30,

7, astelehena: 19:30-22:15

8, martitza: 19:30-22:15

9, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

Zuzendaria: Paul McGuigan.

Antzezleak: Josh Hartnett, Mattheuw Lillard, Rose Byrne.

Ikusi zuen lehen unetik obsesio bilakatuko da Lisa Matthewrentzat. Berak lan egiten duen dendako erakuslehoi aurretik pasa zen une berean maitemindu zen, jarraitu, elkar ezagutu eta amodio istorio bat biziko dute. Guztiak perfektua dirudi, baina egun batetik bestera arrastorik laga gabe desagertuko da Lisa. Bi urte pasa ostean, bizimodua berreraiki du Matthewk, baina ezin du Lisa burutik kendu. Halako batean, Lisa izan daitekeen emakume bat ikusi duela irudituko zaio taberna batean. Bera ote da?

«La historia del camello que llora» (Z.K.)



Zuzendaria: Luigi Faloni.

Antzezleak: Janchiv Ayurzana, Chimed Ohin.

Gobiko desertuan (Mongolia) bizi den familia nomada baten istorioa. Erditze zail baten ostean, gamelu batek ez dio esnerik eman nahi bere gamelutxoari. Esnerik gabe ezin dezakeenez biziraun, inguruko musikari bati deituko dio familiak aintzinako usadio zaharrari jaramon eginez. Erritu honen arabera, amak jaio berria onartu eta, gainera, negarrez hasiko da. Amodioaren galera eta berreskuratzeko egin beharreko ahaleginaz dihardu filmak, baina gameluak dira filma bitxi eta dibertigarri honetako protagonistak.

Atzera begira



1925. urte inguruko erretratu zahar hau herritar batek laga digu. Argazkia Elgoibarko inguruneren batean aterata dago, ikusten denez, zuhaitzez beteriko paraje eder batean. Egun honetan "Fiesta de la banderita" ospatu zen. Festa hau behartsuentzako dirua biltzeko egiten zen, eta herriko Estudiantinak laguntzen zuten. Argazkian ageri diren neska gehienek, diru bilketan parte hartzeko brazaletea daukate besoan. Ezin izan ditugu argazkian ageri diren guztien izenak lortu, eta ez dakigu bizirik dauden edo ez, baina seguruenik denak hilda egongo dira.

Goiko ilaran, zutik ezkerretik eskumara: **Gregoria Lopez, ezezaguna, Maria Barrenetxea, Cari de La Cruz, Irene Etxaniz, Rosa de La Cruz eta Florentina Mujika.**

Erdiko ilaran, ezkerretik eskumara: **Ezezaguna, Josefa Arce, Josefina Uria, Teodora Gurrutxaga eta Ana Arce.**
Behean, ezkerretik eskumara: **Kristina Bahamonde, Karmen Arriola, Luisa Abaskal eta ezezaguna.**



I. URTEURRENA

2004ko otsailaren 11n, 65 urte zituela hil zen

Luis Aranberri Bedaioren

oroimenez urteurreneko meza izango da,
zapatuan, otsailak 12, arratsaldeko 20:00etan Madalan.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR

Aure

%50

DEKORAZIOA

BEHERAPENAK

Dena %50ean

ANTZERKIA

PÉREZ Y FERNÁNDEZ

"Perez eta Fernandez" antzezlanean bi pertsonai ilun eta aspergarrien bizitza kontatzen zaigu. Ustekabeko gertakizun batek bizitza aldatuko die eta beraien patuaren erantzunkizunaren kontzientzia hartu beharko dute.



Otsailak 11
22:15ean
Herriko Antzokian



Zanguango Teatro Producciones, S.L.



KULTURA SAILA



FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA



SAREA

TXAN MAGOA



Otsailak 13
16:30ean
Herriko Antzokian